ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2019ko irailaren 27a, ostirala • 112 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

47/2019 Foru Agindua, irailaren 19koa, onartzen duena 2019ko "Ernestina de Champourcin" poesia lehiaketa, "Ignacio Aldecoa" ipuin lehiaketa eta "Becerro de Bengoa" saiakera sariei buruzko erabakia eman behar duen epaimahaia izendatzea

Martxoaren 1 eta 5eko 61, 67 eta 68/2019 Foru Aginduen bidez onartu ziren 2019ko "Becerro de Bengoa" saiakera, "Ernestina de Champourcin" poesia lehiaketa eta "Ignacio Aldecoa" ipuin lehiaketa sarietako deialdia eta oinarriak.

Deialdien 7. oinarrian ezarritakoaren arabera, epaimahaia izendatu beharra dago.

Kultura Ekintza Zerbitzuaren buruak egindako txostena aztertu da.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehena. 2019ko "Ernestina de Champourcin" poesia lehiaketa, "Ignacio Aldecoa" ipuin lehiaketa eta "Becerro de Bengoa" saiakera sarietako epaimahaia izendatzea. Hara nortzuk izango diren epaimahaiko kide:

— Ignacio Aldecoa Beitia.

— Ana Gandara Sorarrain.

— Felipe Juaristi Galdos.

— Carmelo Caballero Iribarren.

— M. Aranzazu Urretavizcaya Bejarano.

Epaimahaiko idazkari, Enrique Uriarte Gonzalo-Bilbao jardungo da, Kultura Ekintza Zerbitzuburua.

Bigarrena. Foru Agindu hau ALHAOn argitaratu dadila agintzea, guztiek jakin dezaten, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko irailaren 19a

Kultura eta Kirol Saileko diputatua
ANA M. DEL VAL SANCHO

Kultura zuzendaria
Mª INMACULADA SÁNCHEZ ARBE

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.09.27 05:36:18 Z